

## **ERASMUS+ BEKEN INFORMAZIOA LAN PRAKTIKAK SMT**

### **HELBURUAK**

- Ikasleei Europar Batasuneko lan merkatu zabalak dituen beharretara egokitzen lagundu.
- Ikasleek konpetentzi espezifikoak gara ditzaten lagundu, hizkuntza konpetentzia barne, eta lan esperientzia hartzearekin batera, herrialdeari buruzko kultura sozial eta ekonomikoaren ezagutza areagotu.
- Lantegi eta ikastetxeen arteko kooperazioa bultzatu.
- Gazteei kualifikazio maila altua garatzen lagundu, nazioarteko esperientziak ematen duen ikuspegi zabalagoa duten profesionalak formatuz.

### **BEKEN IRAUPENA. EPEAK.**

Hetelek eskatu duen deialdiak, 13 asteko iraupenarekin lan praktikak hartzen ditu, betiere **egun osoko** ordutegiarekin. (\*)

### **BALDINTZAK**

1. OLH, GMHZ edo EMHZ bateko 2. kurtsoko ikaslea izatea HETEL sareko ikastetxe batean ikasturteko edozein titulazio ofizialean (ikasturtean matrikulatuta)
2. Matrikulatuta dagoen ikastetxe horretako hautaketa prozesuan aukeratua izatea, eta inongo diziplina espedienterik edo antzekorik ez edukitzea.
3. EBeko kide diren edozein 28 herrialde bateko hiritartasuna edukitzea, eta parte hartzen duten herrialde batekoa ez izanda ere, proiektuari elkartutako HETEL zentro batean matrikulatuta egotea.
4. Ezin izango da aldi berean beste programa edo beka batean parte hartu.
5. Erasmus praktiketako ikasleek, Lan Praktiken Ziurtagiria **DERRIGORREZ** eduki beharko dute, bukaeran dokumentua aurkeztu beharko dutelarik.

(\*) Enpresa bezala bere aktibitatea arlo publiko edo pribatuan garatzen duen edozein erakunde ulertzen da, bere tamaina, errejimen juridikoa edo jarduten duen sektore ekonomikoa edozein izanda ere, ekonomia soziala barne. (oinarri legala, 2. artikuloa, 25. zenbakia).

*EZ dira harrera erakunde bezala honoko enpresa hauek hartzen:*

- EBeko instituzio edo EBeko beste erakundeak (zerrenda osoa hemen: [http://europa.eu/institutions/index\\_es.htm](http://europa.eu/institutions/index_es.htm))
- EBeko programak kudeatzen dituzten erakundeak (interes gatazka eta/edo finantziario bikoitza saihestearren)
- Jatorrizko herrialdeko instituzio edo ordezkariak publikoak, hala nola, enbaxadak, kontsulatuak, institutu kulturalak, ikastetxeak, etab, programaren nazioarteko baldintzaren derrigortasunagatik.

## HERRIALDE POSIBLEAK

Holanda (Eindhoven); Irlanda (Cork); Finlandia (Salpaus; Jyvaskyla); Italia (Milán; Pistoia; Cosenza; Palermo; Catania); Bulgaria (Sofia); Polonia (Varsovia); Txekiar errepublika (Praga); Alemania (Bensheim; Bremen); Malta.

## POLTSA EKONOMIKOA

1. ERASMUS poltsa ekonomikoa, egonaldiko eta hilabete bakoitzeko 300€ eta 400€ artean, herrialdearen arabera.

### OLH eta GMHZ entzat:

2. CAIXAren laguntza, 350€ (Konfirmatu gabe)
3. Eusko Jaurlaritzaren laguntza, zehaztu gabe.

## ORDAINKETAREN PROZEDURA

Onuradunei poltsa ekonomikoaren ordainketa, adierazten duten kontu korrontera (kontu horren titular edo titularkide izan behar dute) transferentzi bidez bi epetan egingo zaie:

1. Poltsaren %80 enpresan hasitakoan. (\*\*\*)
2. Gainontzekoa egonaldiaren amaieran. (\*\*\*)

### OLH eta GMHZ entzat

3. Caixaren diru-laguntza gutxi gorabehera maiatzean ordainduko da (\*\*\*)
4. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza gutxi gorabehera urrian ordainduko da. (\*\*\*)

*(\*\*\*) Ordainketa guztiak egiteko, dagokien epeetan behar den dokumentazioa aurkeztea ezinbesteko baldintza da.*

Praktikari justifikatu gabeko arrazoi bategatik uko egin edo bertan behera utziz gero, ordura arte jasotako **diru kopurua OSORIK itzuli beharko da**. Uko egitearen arrazoia justifikatua bada, egondako denbora errealari dagokion kopurua jasoko da.